



Zerbitzu ugari galtzen da Gerontologikoa itxita

TOLOSA ▶ Eguneko zentroa, zentro soziala, ikastaroak, irteerak... galtzen direla diote senideek

KALITATEA ▶ Kalitatea eskaini eta Aldundiak hori onartu badu, ea zergatik itxi nahi duten diote ▶ 2

ANOETA ▶

Festak batera antolatzeko gonbitea

Eragileek luzatu diote Udalari ▶ 4

Biztanle adina sentipen 'Tolosa. Begirada berezi bat' liburu-gidan

TOLOSA ▶ «Kaleko jendea» da protagonista Juanma Goñi, Iñigo Royo, Vito 021 eta 750. urteurrena Fundazioaren lanean ▶ 3



lazko partida batean. O.ESKITXABEL

BIDEGOIAN-TOLOSA ▶

Aurrera-Saiaz, gaur Beotibarren II. Berria Txapelketan

Goizuetako Umore Ona izango du aurkari final-zortzirenetan, 18:00etatik aurrera ▶ 5

ARESO ▶

Euskararen ofizialtasuna eskatu dute Nafarroa osoan

Gaur Oinarriak-ek antolatu duen manifestaldira deitu du Udalak ▶ 7

LEIRE MONTES



EUSKARA ▶

Korrika Laguntzailea txartelak salgai

Korrika badatorrela eta —martxoaren 13an Leitzaldean eta 16an Tolosaldean—, Korrika Laguntzailea txartelak salgai jarri dituzte Raku, Elurra eta Laier tabernetan eta Kopi-bat dendan 12 eurotan. Pin bat eta txartela lortzen da eta txartel horrekin Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan beharpenak dituzte Korrika Laguntzaileek.

HIRIGINTZA ▶

Bidegorriaren lanak hasi dituzte jada

Lehenago astean hasi ziren Araba etorbidean eta paperfabrikako zubian bidegorri sarea egiteko lanak, Laskorain Ikastolaraino luzatzeko. Hilabete batzuetan luzatu dira lanak eta uda hasterako bidegorria martxan egotea espero dute udal arduradunek. Guztira hamalau bide zati izango dira Tolosa osoan, Alegiatik iritsi eta Anoeta aldera jarraituz.



Paperfabrikako zubiko lanak atzo arratsaldean. J. SAIZAR

GIZARTEA ▶

Bihar, Saharako bandera udaletxean

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (RASD) sortu zeneko urtemuga ospatuko dute bihar, otsailaren 27a, Mendebaldeko Saharan. Elkertasun modura, udaletxeko balkoian hango bandera jarriko dute bihar. Urtean zehar Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, Udalak eta beste hainbat taldek lan egiten dute herri horri elkarretasuna adierazteko.

GIZARTEA ▶

Zer galtzen dugu Zentro Gerontologikoa itxita?

Bertan bizi direnen senideek eta Iturriza elkartekoak galtzen diren beste zerbitzuez hitz egin dute: eguneko zentroa, zentro soziala, ikastaroak, irteerak...

JOXEMI SAIZAR

Zer galtzen dugu denok Gerontologikoaren itxierarekin? Askok ondo dakite bertan daudenean edo egon direnean. Ondo dakite bere senitartekoei. Eta beste guztiok ere ondo jakitea dute helburu. Horregatik prentsara deitu eta solasaldi bat egin zuten atzo ondorengo lau kidek: Ramon de Anta Iturriza elkarteko kidea —urte askotan lehendakaria izan da— eta Javier Arana, Mila Azaleta eta Miguel Otamendi senideak.

«Jendea ez da konturatzen zein altor dugun hemen tokatu arte» esanez hasi zen hizketan Arana. Dauden 64 plaza —«garesti» diputatuaren hitzetan— baino gehiago galtzen direla argi utzi zuen, zentroan bizi direnez gain, beste jende askori hainbat zerbitzu ere eskaintzen dielako: eguneko zentroa, zentro soziala, yoga —84



Ezkeretik hasita, Mila Azaleta, Ramon de Anta, Javier Arana eta Miguel Otamendi. J. SAIZAR

pertsona— eta dantza ikastaroak, ileapaindegia, ibilaldiak, bingo —60 pertsona—, Sendian programa, Arnasaldi programa...

Sendian programak laguntza ematen die senitartekoei: hilero asteburu batean adineko pertsona zentro honetan utz dezakete, formakuntza ematen die, laguntza terapia... Arnasaldi programak urtean hilabeteko oporrak hartzeko aukera ematen die senideei, nahi duten bezala banatuta, berrindartu eta laguntzen jarraitu ahal izateko. «Laguntza horiek desagertzen badira, senideak etsi eta zentroetara bidaliko dituzte, beharrak handituz», erantsi zuen.

«Zentro honek beti kalitatea eman du eta hala onartu dute Aldundiko arduradunek. Aldundiaren bitxietako bat zen. Orain zergatik itxi nahi dute?», galdetzen zuen Aranak. Kalita-

teak gastu handiagoak suposatzen duela badaki senide honek, «baina txanpinoiak bezala sortzen ari diren zentroekin —zerbitzu minimoekin, pertsonal minimo eta gaizki ordainduta— ezin da hau konparatu».

Itxierarekin Zumebatzarre azpieskualdean —Tolosa eta inguruko 19 herri— plazzen %30a jaisten dela azaldu zuen Aranak. «Biztanlegoa gero eta helduagoa da, familiek gero eta gutxiago lagundu dezake, gero eta behar handiagoak daude. Plaza gehiago jarri beharrean, murrizten ari dira», dio, 2010erako 266 aurreikusten badira azpieskualderako, 171 besterik ez direla izango aurreratu zuen. Plaza horiek eskualdeko jendearentzat daudela kalkulatuta azpimarratu zuen.

Arazo ekonomikoa bada, kudeaketa Aldundiaren zeregina dela gogorarazi zuen: «Beste zentro asko ere garestiak izan-

go dira, baina horregatik ez dituzte itxi egin behar». Diputatuak baldintza arkitektoniko eskasak aipatzen dituela esan zuen: «Baina hori zentro gehienetan. Horretarako ematen dituzte laguntzak eta horregatik egin behar dituzte berritze lanak lurreamendin».

Mila Azaletak bere esperientzia partikularra azaldu zuen: astean zehar eguneko zentroan uzten du ama eta asteburuetan ere horretarako aukera dauka. Sendian eta Arnasaldi programak erabiltzen ditu, «familia baten bizitza normala egin ahal izateko: asteburuetan etxean lo egin eta abar». «Gauetik egunera dena kendu eta Jesusen Zerbitzarietara bidaltzen gaituzte, baina ez daude zerbitzu horiek, asteburuetan adibidez», azaldu zuen Azaletak. Adineko pertsonak direnez, lekuak eta ohiturak egunero ezin dituztela aldatu

JAVIER ARANA
SENITARTEKOA

«Zentro honek beti kalitatea eman du eta Aldundiak hala onartu du; orain zergatik itxi nahi dute?»

MILA AZALETA
SENITARTEKOA

«Adinekoak ez dira mailetak egun batean Donostiara eramateko eta gero itzuliko dituztela esateko»

RAMON DE ANTA
ITURRIZA ELKARTEA

«Zentroa itxiko ote den ez digu inork argitu; Udalak zentroa mantentzeko zerbait egin beharko luke»

azpimarratu zuen: «Ez dira mailetak, egun batean Donostiako Sanitas zentrorara eramateko eta gero Tolosara itzuliko dituztela esateko. Hemen jende ezaguna dute, etxean bezala sentitzen dira».

Ramon de Antak Iturriza elkartek urte askotan zehar egin duen lana aipatu zuen. Urtero hainbat ibilaldi eta oporraldi antolatzen ditu inongo laguntzarik gabe, autofinantzatuz. ISO kalitate saria ere irabazi zuten. «Zentro soziala itxiko ote den ez digu inork argitu. Udalak zentroa mantentzeko zerbait gehiago egin beharko luke».

Bukatzeko, Gerontologikoan bizi direnek beste inon izango ez duten giza harremana dutela azpimarratu zuten lau ordezkariak: zentrorra joaten direnekin hitz egin, kartetan jolastu, senitartekoen bisitak izan... Pertsonak sentitzen dira.

ARAMBURU
Salgai (Ibarra). Pisu zoragarriz Euskal Herria kalean. Garaje 10da aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larra-mendi kalean, 112 m². Berritua.
Salgai (Tolosa). Pisu handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larra-mendi kalean, 30.000.000 pta.
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSA 750. URTEURRENA ▶

Biztanle adina sentipen

'Tolosa. Begirada berezi bat' liburu-gida aurkeztu dute; «kaleko jendearen» begietatik, Tolosa sentitzeko era asko daudela agerian utzi nahi du lanak



Batzar aretoa eruz bete zen, herenegun; eskuineko argazkian, ezkerretik hasita, Royo, Bildarratz, Gomez Elosegi eta Goñi, aurkezpenean. L.M.

LEIRE MONTES

«Bizi garen lekuak ikusteko era asko daude. Tolosa sentitzeko ere bai. Gutxienez, biztanle adina». Uste hori oinarri hartuta jaio da *Tolosa. Begirada berezi bat* liburua. Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak deitutako lehiaketa irabazi, eta «bertakozentzako eta kanpokoentzako» liburu-gida egin dute Iñigo Royo argazkilarik tolosarrak, Juanma Goñi kazetari tolosarrak, eta Vito O21 enpresak. Herenegun egin zuten aurkezpena udaletxean, Udaleko ordezkariekin batera, jendez betetako batzar aretoan.

Hain zuzen ere, «herritarrei» eman nahi izan die lehentasuna lan taldeak liburu honetan, Goñik azaldu bezala: «Tolosako gai aipagarrienak hitz gutxitan azaldu nahi izan ditugu. Irudiei eta jendeari eman diogu protagonismoa». Royoren tzat, «Tolosa ez da bakarra. Edo, behintzat, bere benetako historia herriko kaleetan barre, negar egin, oinez ibiltzen ikasi, gozatu eta sufritu duten herritarren bizipenen batuketada».

Horregatik, herria deskribatzeko orduan, hogeita bost arlo hautatu dituzte egileek; eta gai bakoitza pertsona batekin lotu dute: «Jendearen hautaketa anitza izatea nahi genuen. Ez genuen mausoleorik nahi, Tolosa bizi bat baizik. Horrela, kaleko jendea aukeratu dugu».

Behin pertsona aukeraturata, lantxo bat jarri zioten kaleko protagonista horri: «Guztiekin primeran erantzun dute, eta haiek lan egitea pozgarria izan da benetan. Bakoitzari eskatu genion, edozein arrazoi zela medio, haren bizitzarekin lotura zuen toki bat aukeratzeko».

ATALAK ETA PROTAGONISTAK ▶

Tolosa eta bere auzoak. Jokin Bildarratz. Alkatea.

Tolosa, eskualdearen hiriburu. Clara. Ikaztegieta bizi da.

Garraioideak. Angel. Bidaiaia.

Abesbatza tradizioa. Josebo.

Abesbatza bateko kidea da.

Merkataritza. Oihana eta Eli. Merkatariaik.

Gastronomia. Iñaki. Jatetxe batean egiten du lan.

Euskara. Amaia. *Galtzaundi* aldizkariako kazetaria.

San Joan jaiek. Ander. Eskopetaria.

Historia. Fernando. Historialaria.

Elizak. Aurora. Katekista.

Gazteria. Irati. Gaztea.

Kultura. Sükrü. Artista.

Ostalaritza-eskaintza. Fabi.

Hotel bateko harreragilea.

Industria. Arantxa. Metal arloko enpresa bateko langilea.



Feriak. Iñigo. Berdura plazako saltzailea.

Hezkuntza. Conchita. Irakaslea.

Haurtzarora. Irene. Umea.

Kirolak. Txus. Patinatzailea.

Baserrigiroa. Marixabel.

Azurtzi baserrian bizi da.

Mendia. Juli. Mendizalea.

Musika. Xabier. Musikaria.

Hirugarren adina. Josefina.

Adinekoa.

Eraikin bereziak. Javier.

Eraikuntzako langilea.

Inauteriak. Nora.

Inauterizalea.

Natura. Alberto. Biologoa.

Memoria.

ko. Eta argazki bana egin diegu toki horietan. Horrela joan gara ibilbide hau prestatzen».

«Egunerokotasuneko» istorio horiez gain, herriko gairik eta lekurik garrantzitsuenak eta berezienak ere jasotzen ditu lanak, «besteengandik desberdindu eta herriari nortasun propioa ematen diotenak».

Jokin Bildarratz Tolosako alkatearen esanetan, «ikusgarria» da liburua: «Tolosa asko daudela uzten du agerian».

Dagoeneko salgai

Lau hizkuntzatan argitaratu dute *Tolosa. Begirada berezi bat* liburu-gida: euskara, gaztelania, ingeleza eta frantsesa.

750. urteurrenari so

Datorren urtean beteko ditu 750 urte Tolosak, eta urteurren hori begira dago jada herria. *Begirada berezi bat* argitalpena ere ospakizun horien baitan dago.

Tolosako alkate eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioako presidente Bildarratzek lau asmoren berri eman zuen agerraldian: «Lehenik eta behin esan beharra dago herri bat garela duela 750 urte batzuk hemen zeudelako jada, orain beste zenbait gaudelako, eta etorkizunean ere beste hainbat izango direlako. Bilduma hori osatzea da gure nahi».

Bestalde, Tolosa herri indartsua eta bizia dela azpimarratu zuen, eta urteurrenako ospakizunak izaera hori oraindik gehiago laguntzeko eta bultzateko tresna izan nahi dutela gaineratu zuen. Gainera, «ospakizun zabalak eta herrikoiak» antolatzea izango dute xede. Eta etorkizunari etengabe begiratu diote: «Guri eman diguten bezala, guk ere ondarea utzi nahi diegu hurrengo belaunaldiari. Liburu hau, behintzat, izango dute».

XAKE ▶

Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa, amaituta

Gauzak espero bezala joan ziren, eta ez zen ezustekorik izan sailkapenean

ERREDAKZIOA

Laugarren jardunaldiarekin amaitu zen, igandearen, Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa. Gauzak espero bezala joan ziren, eta da ezustekorik izan sailkapenean.

Joxe Mujikak (Uzturpe-Ibarrera) irabazi zuen kadeetan, Jokin Mendiak (Hirukide-Tolosa) infantiletan, Xabier Correderek (Jesusen Bihotza-Villabona) alebinetan, Aitor Villenak (Jesusen Bihotza-Villabona) benjaminetan, eta Oihana Etxenik (Anoetako Herri Ikastola) nesketan.

Alebinetako podiuma Aitor Alkortak (Jesusen Bihotza-Villabona) eta Aimir Intxaurrendok (Samaniego-Tolosa) osatu zuten. Bi horiek, Xabier Correderekin eta Jokin Mendiarekin batera, lortu dute finaletarako sailkapen zuzena. Nesketan, Sara Zabala (Laskorain-Tolosa) izan zen bigarren, eta Amaia Ugartemendia (Laskorain-Tolosa) hirugarren. Benjaminetan, Mikel Muguruza (Pello Errota-Asteasu) eta Danel Intxaurrendok (Samaniego-Tolosa) izan ziren bigarren eta hirugarren, buurrenez hurren.

Gipuzkoako Ligan, irabazi

Bestade, Gipuzkoako taldekako Ligan seigarren jardunaldia jokatu zuten asteburuan. Tolosa-Ibarrako Xake taldeak 3-1 irabazi zion Donostiako Fortuna taldeari. M.M. Barojak, J. Barojak eta D. Moreauk irabazi egin zuten.

hilberriak ▶

estekak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

+

Juanes Echechipia Liceaga

jauna

Zure bizitzako musikaren oihartzuna ez da sekula itzaliko.

Ez adiorik.

Zure seme-alabak: Koldo eta Oihana Amundarain; ezkon anai-arrebak: Juan Jose Elizaran eta Amaia Aizpuru; ilobak, lehengusuaik eta gainerako ahaideak.

Hileta elizkizuna GAUR izango da, arratsaldeko 19:00ETAN, TOLOSAKO SAN FRANTZISKOKO parroki elizan.

Tolosan, 2005eko otsailaren 26an

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Asteasu. Medikua: 69 24 23
Ibarralde. Osasun eb: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
- ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo Zerb: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M.L. Amaro azuznea 9 (Tolosa). 67 51 18.
Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Etoko lanak. Legorretarako andre bat behar da ebeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko.
Deitu: 609 16 16 35.

Etoko lanak. Iruran neska bat behar da ume bat zaintzeko eta ebeko lanak egiteko, 7:30etik 9:45era eta 16:30etik 18:15era.
Deitu: 618 056 781.

Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.

Sukaldaria. Sukaldari bat behar da asteburuetarako. Deitu telefono honetara: 635 700 559.
Igeltseroa. Mutil bat behar da, igeltseritzako ofiziala 2.
mailakoa. Deitu: 615 748 661.

ALOKAIRUAN

Garaje itxia. lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.

SALGAI

Estetika. Estetikako aparagailuak salgai. Deitu: 660 057 605.

GUTUN@K ▶



Elkarlanari bide emanez, ametsak gauzatu

Urte asko dira Euskal Herrian gazttxeen mugimendua hasi zenetik. Orduetik hona egin ditugun ekintzak asko izan diren arren, ez dira gutxiago izan gaitzitu behar izan ditugun oztopoak. Botereak ez ditu begi onez ikusten gure txoko eta mugimenduak, beraiek ezarri nahi duten bizi eredia kolokan jartzan dugulako.—ikus beste-

rik ez dago azkenaldian jasan ditugun erasoak: Sorgintxulo, Mauleko Pitxu gazttxea, Euskal Jai, Algortako gazttxea...—Hala ere, argi dugu paretak bota arren gure ametsak bizirik jarraituko dutela. Horren adibide garbiena azken aldiaren gazttxeek bizi duten loraldia da.

Eraso hauei aurre egiteko modurik eraginkorrena elkarlanari bide emanez, ametsak gauzatu. Eraso hauei aurre egiteko modua soilik, baditu beste alderdi on batzuk ere.

Batetik, gazteok gizarteko kide garen momentutik, etorkizun duin bat lortzeko beharra sentitzen dugu. Behar hau auzo errazagoa iruditzen zaigu guztiok bat eginik, gazte talde bakoitza bere kabuz aritzea baino. Bestetik, ezarri nahi ditugun bizi ereduari erantzun bateratu ematea beharrezkoa ikusten dugu. Eginak ditugun eredu horren aurkako zenbait ekintza, orain gutxi egin genuen AHTaren aurkako bizikleta martxa kasu, eta aurrerantzean ere egingo ditugulakoan gaude. Hauxe gain, aisialdia ere

hor daukagu. Gure aburuz, gazteok, gure aisialdi eredu propioa sortzeko aukera izan behar dugu, inoren menpekotasunik gabe. Amaizteko, gazte talde ezberdinen iritziak elkartrukatzeko aukera paregabean izan daiteke.

Hau guztia aurrera atera asmotan. Gazte Eguna antolatutako dugu Tolosaldeko gazttxe eta gazte asanbladak larunbat honetarako, hilak 26, Alegian; honela elkarlanari bide emanez.

MADDI SARASOLA ETA

INÍGO ERRAZKIN (ANOETAKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEAK) ▶ ANOETA

ANOETA ▶ JAIK

Festak batera antolatzeko gonbidapena

Gizarte eragileek ez dute espero Udalak beren proposamena aintzat hartzea

IMANOL GARCIA

Anoetarako Auzolanean herri plataformak, AHT Gelditu! Elkarlanak eta Anoetako Gazte Asanbladak prentsaurrekoa egin zuten atzo herriko festan inguruan. «Erreflexio bat burutu dugu eta aurreko urteko herriko festetan gertatu zen zati-keta berriro eman ez dadin enplazamendu garbi bat egiten diogu Udalari: anoetarron eskubideak errespetatu eta herriko festak ere», azaldu zuten hiru taldeek.

Gizarte eragileek ez dute

uste Udalak beren proposamena aintzat hartuko duenik, «zorritzarrez bi urte hauetan Udalak erakutsi duen jarrera itxi eta antidemokratikoa» dela eta. Horregatik, «Anoetaren eta anoetarron eskubideen defentsan festa alternatiboak antolatzen hasi gara. Udalaren bazterketaren aurrean anoetar guztiok ahal diren jai euskaldun, parekide, alai eta partehartzaileenak izan daitezkeen egitarau mardul eta zabal bat azartzeko».

Hiru taldeek Udalari enplazamendu bat luzatzen diote: «Errespetatu itzazu anoetarron eskubideak eta gu prest gaude egitarauak bateratu eta elka-



Hiru gizarte eragileek atzo egindako prentsaurrekoa. I. GARCIA

rrekin festak antolatzeko». Udalaren erantzuna jaso bitartean, festak antolatzeko batzorde bat eratu dute eta lehen bilera datorren asteazkenean, 19:00etan, udaletxean egingo da. Herritar oro bertara azaltzea animatzen dituzte.

Prensaurrekoa egin zuten hiru taldek egungo Udala kritikatu zuten: «Anoetako Udala, PNV-EAren eskuetan erori zenetik herriaren egoerak nabarmen egin du okerrera. Plataformari dagozkion lau zinegotzian aulkiak inongo lotsarik gabe okupatu izanak sorturiko herritarren eta Udalaren artean krispazio eta zatiketa egoeraz gain, Udala harturiko jarrera, neurri eta erabakiek

anoetarrak eta Udala bera ere kinka larrian ipini baitituzte».

Afirmazio arrazoitzeko zenbait adibide luzatu zituzten: «Herria txikituko duen AHT proiektuarekiko duten jarrera pasiboa eta proiektu honen aurka gaudenok jasaten dugun lokal eza, bazterketa eta desinformazioa; babes ofizialeko etxeak jasaten ari diren atzerapenean Udalak izan duen zerikusia eta egoera honen eruz Anoetako gazteek bizi duten egoera...».

Gizarte eragileek «egoera konpontzeko borondatearik ez» dute ikusten Udaletik. «Badirudi etekinak ematen dizkiela, bestela honezko konpondua behar zuen arazoak».

IRURA-ANOETA ▶

Xake erakustaldia helduentzat martxoaren 8an

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta, Irura eta Anoetako udalek xake erakustaldia antolatuko dute helduentzat. Martxoaren 8an egingo da, Irura-ko Gazte Alaiak elkartearen, 17:00etik 19:00etara. Izen-ematea martxoaren 7a arte, Anoetako edo Irurako udaletxean.

IRURA ▶

Korrika Batzordearen bilera asteartean

Laster Korrika 14 pasatuko da eskualdetik. Hori dela-eta Irurako Korrika Batzordeak bilera egingo du asteartean, martxoaren 1ean. Bilera udaletxean egingo da, 19:30etik aurrera. Antolatzaileek herritar guztiak animatzen dituzte bilerara azaldu eta Korrika Batzordearen parte hartzera.

VILLABONA ▶

Pirinioetako argazkiak ikusgai Maxola tabernan

Villabonako Maxola tabernan erakusketak antolatzen ari dira azkenaldian. Egun dagoen erakustaldia argazkiekin osatuta dago. Gorka Eguren billabonatarrek Pirinioetara egindako bidaietan ateratako argazkiak ikusi daitezke Maxolan. Erakusketak martxoaren erdira arte egingo da ikusgai.

VILLABONA ▶

Behar-Zanaren ohizko asanblada orokorra bihar

Behar-Zana kirol elkarteak bere ohizko asanblada orokorra egingo du bihar goizean. Lehenengo deialdia 9:30ean izango da eta bigarrena 10:00etan. Jorratuko diren gaien berebiziko garrantzia dela eta, ahalik eta bazkide gehien joan daitezkeen eskatzen dute elkarteok.

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

Aurrera-Saiaz Umore Onaren aurka ariko da II. Berria Txapelketan

Hiru norgehiagokak gaur jokatu dituzte Bidegoiango gazteek Beotibar pilotalekuan 18:00etan



Gazteak, aurreko urtean jokatuak norgehiagoka batean. O. ESKITABEL

NOELIA LATABURU

Aurrera-Saiaz pilota taldeak aurrera darrai II. Berria Txapelketan. Aurreko norgehiagoka irabazi ostean, final-zortzirentako partidak jokatu ditu gaur bere hiru bikoteekin. Bidegoian eta Tolosakoek Goizuetako Umore Ona izango dute aurkari, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 18:00etan.

Lehen txandan kadeteak ariko dira. Artolak eta Telletxeak —atzo Euskadiko Kluben Txapelketako finala jokatu zuena— Narbate II.a eta Madariaga bikotea izango dute aurrez aurre. Bigarren norgehi-

goka, berriz, jubenil mailari dagokio. Aurrera-Saiazen alde tik Telleria eta Galarraga izango dira. Apezetxea eta Eskuderooren aurka. Eta azken partid an, nagusia hain zuzen ere, Renobalesek eta Oteizak osatutako bikoteak jokatu du Loiarde eta Retegiren aurka.

Berria Txapelketaren arauen arabera, ez da nahiko partida irabaztea. Guztien artean eskuratutako tantoak batu eta gehien dituenak pasako du fasea. Aurrera-Saiazek gaurkoa irabaziko balu hurrengo norgehiagoka, final-laurdenetakoak, martxoaren 13an jokatu luke. Umore ona baino, zorrea

AURRERA-SIAZ ▶

Hauek dira II. Berria Txapelketan ari diren eta Luis Galarragaren ardurapean dauden pilotari gazteak.

BIKOTEAK

Kadeteak. Telletxea eta Artola.

Jubenilak. Telleria eta Galarraga.

Nagusiak. Renobales eta Oteiza.

eta kemena beharko dute, beraz, gaur pilota taldeko gazteek.

Zazpi Iturri, kalean

Amezketako Zazpi Iturri pilota taldeak —gure eskualdeko beste taldea—, ordea, lehiaketa utzi behar izan zuen aurreko otsailaren 11n Lemoaren aurka jokatuak norgehiagokan kanporatua izan zenean. Iaz, Aurrera-Saiaz eta Zazpi Iturri elkarren aurka aritu ziren I. Berria Txapelketako finalean, amezketarrek irabazi zutelarik. Aurten Bidegoian eta Tolosakoengan izan beharko dira guztion esperantzak, gaur final-laurdenetarako txartela eskura dezaten.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Ekitaldiz beteriko eguna gaur Gazte Eguna 05ean

Tolosaldeko gaztetxeek elkarlanean eta gazte asanbladak antolatu dute festa

N. LATABURU

Gaur goizetik festa giroa izango da Alegian, izan ere bertan ospatuko dute Amezketak, Alegia, Ibarra, Tolosako Sanblazpiko, Anoeta eta Villabonako gaztetxeek antolatutako Gazte Eguna 05.

10:00etan mendi martxa izango da; 12:00etan, berriz, kafe tertulia, 13:30ean triki poteoa eta ordu bete beranduago, gazte bazkaria gazte-

txean. Arratsaldeari gazte joku herrikoekin emango diote hasiera; 19:00etan 19/89 auzian auzipetutakoei atxikimendua adierazteko manifestaldia egingo dute. 20:00etan Get Real, Jone, Izeba Pilarren ilobar, Nunbait eta Ezein taldeen kontzertua izango da eta amaitzeko afaria antolatuko da. *Paretak bota arren ametsak bizirik diraute* leloa aukeratu gaurko eta « gazte arazoel aurre» egitea dute helburu.



Odola ateraz, bizia emanaz

ALEGIA ▶ Alegiako sendagilearen etxeko ateenan ilara egin zuten atzo alegiarrek, Gipuzkoako odol emaleen elkarrean antolatu zuten gunean. Bi orduz izan ziren herrian; datorren bisita, berriz, ekaina aldera egingo dute. N. LATABURU

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin

kanikak
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GAZTELU ▶ KULTURA

2005eko kultur agenda aurkeztu dute

Zinema, afari herrikoiak eta musika emanaldiak izango dira martxoan

IÑIGO TERRADILLOS

Gazteluko Udalak martxotik abendua bitarte herrian egingo diren ekitaldi kulturalen programa atera berri du; Kontzejuarekin elkarlanean buruturiko programazio honetan era guztietako ekitaldiak aurkitzen dira, eta horien artean, zinema, herri afariak, irteerak, musika emanaldiak eta lehiaketak nagusituko dira.

Datorren hilabeteko egitarauari begira, astero film bat

izango da ikusgai Kontzejuan; lehenengo hiru asteetan ostiralean emango dituzte 19:30ean eta martxoko azken astean larunbatean izango da txikiel zuzenduriko filma 18:00etan.

Beste ekitaldien artean, Emakumearen Eguneko afaria eta otsailaren 26an egingo den afari herrikoia musika emanaldiarekin girotuta antolatuko dituzte.

Ekitaldi berezien artean, oraindik konfirmatzeko daudenak dira herriko gurutze-bidea



Herriko Kontzejuan izango dira ekitaldi gehienak. HITZA

osatzea eta Gazteluko ermitaren eskultura oroigarria burutzea. Bestalde, martxoaren 28tik apirilaren 1a bitarte

10:00etatik 13:00etara 8 urterarteko haurrentzako ludoteka zerbitzua eskainiko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

MARTXOKO EGITARUA ▶

ZINEMA

Otsailak 4. *Mi vida sin mi.*

Otsailak 11. *Hombres hombres...*

Otsailak 18. *Aitorpen pribatuak.*

MERIENDA ETA ZINEMA TXIKIENTZAT

Otsailak 26 (18:00). Askaria eta *El gigante de hierro* filma izango dute ikusgai herriko txikienek.

AFARI HERRIKOIAK

Otsailak 8 (21:30).

Emakumearen eguneko afaria. Herriko gizonak prestatu eta zerbitzatuko dute afaria.

Otsailak 26 (21:30). Afari herrikoia, eta ondoren Jaioneren eskutik musika emanaldiaz gozatzeko aukera izango da.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Gizarte Zerbitzua 1.000 pertsonen arduratu da

Zerbitzuaren hobekuntzak ekarri du jendea

I. TERRADILLOS

Gizarte Zerbitzua 1.000 pertsonen arduratu dela 2004. urtean adierazi du Ibarra Udalak.

Udal zerbitzuetik pasatutako en 336 lagun izapidetutako espedientei dagozkie. Ibarra Udala Gizarte Zerbitzuetik azpimarratu nahi izan dute, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren zabalak eta hobekuntzak egin duela gero eta gehiago izatea beren arazoak eta laguntza eskeak udal zerbitzura planteatzera etorri diren ibarritarrak.

Honakoak dira Gizarte Zerbitzuetik eman dituzten datuak: etxeko laguntzaren 30 kasu tramitatu dira 72.409,96 euroko aurrekontuarekin; gizarte larrialdiko laguntzen 22 kasu izapidetu dira 29.000 euroko aurrekontuarekin. Gizarte Zerbitzuetik azpimarratu nahi izan dute, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren zabalak eta hobekuntzak egin duela gero eta gehiago izatea beren arazoak eta laguntza eskeak udal zerbitzura planteatzera etorri diren ibarritarrak.

2005eko aurrekontuetan, departamentu desberdinen artean, Gizarte Zerbitzuen alozkerak bideratuko dira gehien.

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

KONTSU TABERNA (OREXA)

Ostiral gauetik igande gaua arte asteberriko menua **12 €**

Tel.: 943 68 21 54

IBARRA ▶

Hautesle-zerrenden erakusketa

Ibarra Udaltetik jakinarazi nahi izan dute indarrean dauden hautesle-zerrendak jendaurerantz ezarri daudela dagoeneko eta hauek martxoaren 7ra bitarte izango direla denen eskura. Aipatutako eguna heldu bitartean, hautesle zerrendan beharrezkotzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango direla ere azaldu nahi izan die Ibarra herritarrei Udalak.

GAZTELU ▶

Tutorearen bisita izango da astelehenean

Astelehenean, otsailaren 28an izango dituzte bisita Gazteluko KZgunean 9:00etatik 13:00etara. Bestalde, egun berean Sarean lagundu mintegia izango da 11:00etatik 12:00etara.

IBARRALDEA ▶

Elduain eta Berastegiko KZguneak abian

Elduain eta Berastegiko KZguneetan Interneteko konektioarekin izandako arazoak konpondu dira, beraz, nahi duen oro gerturatu daiteke Interneten nabigatzera. Bestalde, KZguneen tutorea Berastegin martxoaren 10ean izango da eta Elduainen martxoaren 3 eta 17an izango da 9:00etatik 13:00etara. Interneten inguruan zalantzarik bada, egun hauetan galdetu ahal izango da tutoreari.

IBARRA ▶

Aerobik maratoirako izen-ematea

Datorren larunbatean egingo da X. Aerobik Elkartasun Maratoia Ibarra kiroldegian 16:30ean. Bertan bildutako dirua San Bartolome misio taldeak Honduras, India eta Ekuadorren dituen hiru proiektuei laguntzeko izango da. Aerobik maratoian parte hartu nahi duenak, Kutxan edo Euskadiko Kutxan 6 euroko ingrosua egin beharko du eta gero ziurtagiria maratoia izango den egunean edo lehenago aurkeztu kiroldegian.

IBARRA ▶

Mendiko argazki erakusketa astelehenean

II. Mendi Astearen baitan izango da aste osoan zehar, hainbat ekitaldirekin batera

I. TERRADILLOS

Ibarra Haitzetan Raju mendi taldeak antolatutako, Ibarra II. Mendi Astea izango da datorren astelehenean, otsailaren 28tik, martxoaren 6a bitarte.

Mendi Asteari hasiera emateko mendiko argazki erakusketa antolatuko dute; hainbat lagunek ateratako mendietako argazki hauek Benito Izagirre kultur etxean izango dira ikusgai datorren otsailaren 28tik martxoaren 6a bitarte.

Astelehenean hasi eta igandea bitarte ekitaldi ugari eta interesgarriak prestatu dituzte Ibarra mendiko elkar-tekoei; horien artean, Jon Goikoetxea Bolin Everesteko diapositiba emanaldia edo eskalada irteera Santa Barbara eta inguruetako mendietara irteera nabarmentzen dira besteak beste.

IRIARTE
J A T E T X E A
BERROBI
MENU BEREZIA: 26 €
KARTA ZABALA
Erreserbak • 943 683 078

ARESO ▶ EUSKARA



Hilaren 11an egin zuten kontzentrazioa eskualdean, euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz. JAIONE ASTIBIA

Aresok ere bat egin du Oinarriak-ek gaurko eginiko deialdiarekin

Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako eskatu du eta hizkuntz eskubideak bermatuko dituen politika aldarrikatu

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Udalak, «euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako» hedatzea eskatu eta «nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen hizkuntz politika egoki bat egitea» aldarrikatu du. Hori da, atzo zazpi burutu zuten udalbatzarrean, alkatetza duen taldearen aldeko bozkekin onartu zuten agiriak dioena.

Bide batez, gaur arratsaldean, 17:30ean hasita, Iruñeko autobus geltokitik abiatuko den manifestazioaren «helburu eta aldarrikapenekin» bat egin zuen Udalak, hots Oinarriak plataformak *Ofizialtasuna Nafarroa osoan* leloa buru duela gaur egitekoa duenarekin.

Onartu zuten agirian lehen-dabizi, oraindainokoa Nafarroako Gobernuak egin duen hizkuntz politikaren balorazioa ageri da. Orohar «euskararen-

tzat oso kaltegarritzat» jo zuten zuten egindako politika hau, «erdal hiztunen nagusitasuna babesteko politika baino ez baita izan» esanez. Hori frogatzen dute, haien ustez, aurreko urteetan «onartu eta aplikatu diren Foru Dekretu eta bestelako lege-xedapenek», euskarari dagokionez, Nafarroa hiru hizkuntz-eremutan banatzen duen Euskararen Dekretuari erreferentzia eginez, esate baterako. Horrela bada, «gaur egungo hizkuntz politikarekin euskarak nekez lortuko du normalizazioaren helburua», ondorioztatu zuten, eta Udal honek, nafar Gobernuaren hizkuntza politikaren gaineko balorazio «ezkorra» egiten du. Ondoren, euskararen normalizazioa lortzeko «Nafarroan beste era bateko hizkuntz politika» behar dela adierazi zuten, horretarako al-daketa sakonak egin behar direla gaineratuz, «legeetan, az-

piegituretan, irizpideetan eta jarreretan, besteak beste», ziotenez.

Aresoko Udalaren ustez, hizkuntza politika berri horrek «euskara Nafarroako lurralde osoan ofiziala izatea ziurtatu behar du», hori aitortuko dion «lege estatusa izanik». Ofizialtasunarekin «nafar guziek hizkuntza eskubide berberak» izatea eta «Nafarroa osoan, euskara ondorio juridiko guzietan erabazibili ahal izatea» bermatuko litzatekeela dio. Ildo horretatik, euskara «ezagutzeko, ikasteko eta erabiltzeko eskubideak Nafarroa osoko herritarrei» dagozkiela nabarmen utzi zuten.

Hori lortuko bada, «tokian tokiko errealitateari egokitutako plangintza eraginkorrak sortu eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide juridiko, ekonomiko eta pertsonalak ezarri» eginen dela iritzi zioten.

LEITZA ▶

Gaur jokatu du Aurrerak Beti Onak-en aurka

Gaur Atarrabiara joan behar dira Aurrera futbol taldeko jokalariek, izan ere hango Beti Onak-en aurka jokatzeko egokitzen baitzaio jardunaldi honetan: 15:45ean hasiko da nor-gehiegoka. Aurrera, besteak baino partidu bat gutxiago jokatu dago, elurra zela eta aurreko asteburuan atzeratu zena zehazki, eta sailkapeneko buruari eustea du helburu. Atarrabiarrak ere, ordea, hortxe dabilta, goiko leku horietara hurbildu nahian eta partidu gogor samarra espero dute.

LEITZA ▶

Zinema saio bikoitza igande honetakoan

Ohiko saioan, igandean, 19:30etan, Thomas McCarthy-ren *Vias cruzadas* filma ikusteko aukera izanen da. Bi ordu eta erdi lehenago, ordea, 17:00etan, haur eta gaztetxoentzat hilean behin guraso elkarteak proiektatzen dituen euskarazko filmen txanda ere izanen da. Kasu honetan *Supertramps* marrazki bizi-duneko pelikula eskainiko dute.

LEITZA ▶

Erniora joan dira Mendibil-ek antolatuta

Mendibil mendi taldeak, Erniora irteera antolatu du iganderako. Goizean aterako dira, 8:00etan, plazatik eta autobusez. Alkizatik gora abiatuko dira, Lete, Areta eta Itxurainetik pasa ondoren, Hirumugarrieta-joz. Ernioren bueltan. Honen eta Gazumeren arteko lepora, Zelatunera iritsi eta tontorrera igoko dira. Inguru haiek elurtuta egonen dira oraindik.

LEITZA ▶

Igor Astibia preso bisitarik gabe utzi zuten asteburuan

Ikustaldia kontzertatuta izanik ere, bera ikustera sartzen ez zieten utzi joandako senideei

J. ASTIBIA

Joan den asteburuan Igor Astibia preso leitzarra, bisitarik gabe utzi zuten espetxeratuta daukaten Navalcarnero (Espainia) kartzelan, bera ikustera joan ziren senideek «ikustaldia aurrez hitzartuta zuten arren», senideek aditzera eman zuten, sarrerako funtzionariak jarritako aitzakiei aurre egin zieten, baina «azkenik zuela 10 egun ateratako barne-arau bat asmatu zuten», zioten, «eta ez ziguten sartzen utzi».

Larunbatero bezala, ia 500 kilometro egin Navalcarneroraino (Espainia) eta, 15:30ean zuten Igor Astibiaren senideek bera ikusteko bisitarean ordua. Leihatlan, iritsi bezain laister, aitzakia aitzakiaren gainean jartzen hasi omen ziren, adierazi zuten: «aurrena Igorrek ez zuela bisitarik esan zieten; gero baietz, baina ordu bete beranduago; hurrena abizen desberdinak zituztela eta ezin zitezkeela sartu...». Hitzordua baieztatzen zuten agiriarekin, lehendik sartu ahal izan zuten senideen zerrenda eta familia-liburuekin, funtzionariak jarri zituztela «aitzaki guztiak gauditu zituzten, baina», jarraitu zuten esanez «azkenik, zuela 10 egun atera omen zuten barne-arau bat aitatu zuten, ziotenez, bisitak arautzeko egina zena edo», zioten «eta gezurra zela jakin arren, senideei ez zieten sartzen utzi».

«Argi dago, egun hartan guri sartzen ez uztea zutela helburu, eta irtenbiderik gelditu ez zitzaizkion zelako lege horren asmazioa egin zutela», zioten, «geroztik jakindu dugu, ez dutela horrelako legerik egin», argituz. «Nahi dutena egiten dute:gaur honi, bihar hari, guztiz jokabide arbitraioak dira».

iragarki laburrak ▶

Telefonistak. Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko

Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.
Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udalengan Informazioa doan. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: eskolak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia.

Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan:

Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.
Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza

libreak: erakunde publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Peoiak, elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 26a, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: #kaltzesketa, Aduna, Abizur, Añzo, Aliza, Alza, Ametsela, Anotza, Anso, Balamain, Balaranta, Berastegi, Berriki, Ekauri, Herrialde, Iturri, Nafarroa, Nava, Nivari, Oñate, Lizarra, Oñate, Oñate, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
besterik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

06

hotzera

04

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Bizimodu osasuntsurako giltzarrak izenpeko hitzaldia, adinekoei zuzenduta bihar 11:00etan udalebxean.

Alegia. Egun guztian zehar Gazte Eguna 05: kontzertu, hitzaldi, bazkari, afari eta bestelako ekitaldiak.

Alegia. Aginaga, Izazpi, Antigua eta Zumarragara irteera antolatu dute biharko Mendi Asanbladakoek.

Baliarrain. Puntu txapelketa bihar 16:00etan Harkaitz elkarteak.

Tolosa. X. Zuhaitz Eguna Trianguloan goiz osoan zehar: zuhaitzen eta nekazaritza tresnen erakusketa eta salmenta.

Tolosa. Arraza ezberdineko III. Biga Enkantea Ferialekuan goizean zehar.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldearen batzarra 9:30ean 1. deialdian eta 10:00etan 2. ean Kultur Etxean.

Tolosa. Xomorroak haur antzerki musikala Leidor zineman 17:00etan.

Tolosa. Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa elkartearen egoitzan (plaza Berria 1) bihar 11:00etan.

Tolosa. Goiko Irratian (FM 107) Kornerra saioa. 13:00.

ZINEMA

Tolosa. El vuelo del Fenix Leidorren. 19:30 eta 22:30.

Gaixoentzat erosoago

TOLOSA ▶ Zezen-plazaren ondoan errehabilitazio zentro berria ireki berri du Asuncion klinikak; zortzi fisioterapeuta ari dira lanean bertan



Zezen-plaza ondoko zentro berriko gimnasioan gaixo batzuk bere ariketak egiten atzo goizean. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Gaixoen erosotasuna bilatuz, Asuncion klinikak errehabilitazio zentroa ireki berri du lehengo astean Tolosan bertan, zezen-plazaren ondoan, ileapaindegi handi bat zegoen lekuan.

Zortzi fisioterapeuta daude bertan hainbat errehabilitazio moeta eskaintzen: traumatologikoa, post-kirurgikoa, neurologikoa, reumatologikoa eta arnasketarena. Asuncion klinikarekin barne-komunikazio sistema bat daukate, gaixo bakoitzaren historial medikoa, bi-

lakaera eta txandak uneoro jartzeko.

Errehabilitazio ariketak egiteko 11 box edo kabina, bi Roche kaiola eta gimnasioa daukate. Zentro berri honetan espalderak, bizikleta estatikoak, eskailerak, ultrasoinuak, elektrotterapia, magnetoterapia,

masajea eta horrelakoak dituzte gaixoak behar bezala sendatzeko.

Erabiltzaileak gustura

«Sendagileak gaixo bakoitzari bi edo hiru asterako errehabilitazioa agintzen dio eta fisioterapeutak jarritako ariketak egiten ditu bertan. Lehen klinikaraino igo behar izaten zuten. Orain, denontzat erosotasuna bilatuz, herrian bertan izango dute horretarako leku egokia. Erabiltzaileak oso gustura daude eta gu ere bai», adierazi dio HITZARI Asuncion klinikako arduradun batek. Horrekin batera, klinika inguruan trafikoak eta aparkalekuek lasaitasun ederra hartuko dutela esan behar da, anbulantzia eta auto gutxiago igoko baitira hementik aurrera.

Zezen-plaza ondoko zentro hau 07:00etatik 22:00etara dago zabalik eta egunero 200 gaixotik gora pasatzen dira bertatik.

Asuncion klinikari ingesatuta daudenek bertan jarraituko dute errehabilitazioa egiten. Eta San Ignacio kaleko osasun zentroan ere zerbitzu batzuk eskaintzen jarraituko dute.

AGURRAK ▶



EUSKAL PRESOK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK

Aupa Pello, Eider, Ekaitz, Minde eta Iñigo.

JO muga askatasuna

TAmalez oraindik

KE artean dagoena. Euskaldekko Eberat.



AUPA PELLO ETA JULEN!

Aupa mutilak! Zuen borroka gure eredu.

Eutsi goiari!

Segi.



AUPA IÑIGO

Eta eutsi gogor, oraindik

antzematen ez bada ere, udaberria

laster zetorrek eta. Lander.



URTE ASKOAN

Xabier Sorrairen Mendigain. Mila

kilo zorion dizugu eskaintzen beste urte

berri bat duzuloako hasten. Zure familia.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA

Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!